

# KORRIKA

## **Euskararen alde jendeak egiten duen lasterketa**

Euskararen alde Euskal Herrian zehar lasterka egiten den martxa da. Manifestazio baten modukoa da. [AEK](#) euskaltegiak antolatzen du eta bi urtez behin egin ohi da, bi aste inguru behar izaten du lurralde guztia zeharkatzeko.

Bi urtero ibilbidea aldatu egiten da, baina beti 2.300 kilometro inguru izaten da.

Lehenengo korrika, 1980ko azaroaren 29tik abenduaren 7ra egin zen, lasterketa hau Oñatin hasi eta Bilbon amaitu zen. Azken korrika 2015eko martxoaren 19tik 29ra, Urepeletik Bilbora egin zen azkeneko azterketa.



*(Jendea korrika egiten.)*

Korrika Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko ekimen erraldoia da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertze eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

1980.urtean sortu egin zen Oñatitik Bilbora. 11 egun irauten du ibilbide guztia egiten, bi mila kilometro inguru. Aurten, 20. aldiz ospatuko da.

AEK( Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea). Garai batean euskara egoera txarrean zegoenean, sortu zen. Bere helburua euskara berreskuratzea, ez galtzea eta gehiago hitz egitea zen. Organizazioak ehun euskalategi eta gau-eskoa baino gehiago ditu, eta seihun irakasle. AEK-k bi urtetan behin korrika antolatzen du, euskararen aldeko ekitaldirik garrantzitsuena. (antolatzailea)



(Sortzailea )

NOLA PARTE HARTU?

Martxoak 30, osteguna

Martxoak 31, ostirala

7:00	Otxandio
17:40	Legutio
19:02	Gasteiz
23:46	Langraiz Oka
00:32	Argantzun
01:30	Trebiñu
04:32	Bernedo
06:06	Kanpezu
09:18	Lizarra
11:59	Gares
14:52	Larraga
16:19	Lerin
17:32	Carcar
18:25	Lodosa
19:16	Carcar
19:54	San Adrian
21:18	Azagra
23:28	Cadreita

Zure herrian edo auzoan eratuko den Korrika Batzordean parte hartuz eta sare sozialetan parte hartuz, telefonoari deitu.

Baita ere diruz lagundu dezakezu, 20. Korrika ateratzen dituzten materialak erosten. Korrikaren izenean Euskadiko Kutxan zabaldu den kontu korrontean nahi den ekarpena eginez.

ZATOZ OTXANDIORA MARTXOAREN 30ean ETA IRUÑERA APIRILAREN 9an!!!

Bizkarrekoa jantzita korrika eginez; euskara ikasi, hitz egin eta euskaraz bizi nahi dugula erakusteko.

Esteka hau utzi egingo dizuegu aurtengo korrikako abestia entzuteko.

<https://www.youtube.com/watch?v=rujechHH6s>